






Pasaiko portuko trafikoen egitura eta bilakaera.

- **1997-2007ko trafikoen bilakaeraren arabera, joera goranzkoa da, harik eta 2003an 5,959 milioi tonako topera iritsi arte.** Hortik aurrera, behera egiten du, harik eta 2005ean 5,410 milioi tonakoa izan arte. 2007ko ekitaldian, trafikoa 5,078 milioi tonakoa izan zen guztira. 1997-2003ko epealdiko hazkundea %55,2koa izan zen; eta urteko batez bestekoa, %9,21. Aurrerago ikusiko dugunez, kopuru hori portuaren ahalmenetik hurbil dagoenez, baliteke trafikoa murriztearen arrazoi bat portuko instalazioen lehiakortasuna galtzea izatea.
- **Portuko trafiko guztiaren banaketaren arabera, trafiko handienak solteko salgai solidoenak eta merkantzia orokorrenak dira.** Trafiko guztia kontuan hartuta, %55 solteko salgai solidoak dira; %44, merkantzia orokorrak; eta gainerakoa, arrantza, hornidura eta beste merkantzia batzuk. Merkantzia orokorrei dagokienez, 2007an 2,246 milioi tona mugitu ziren guztira, hau da, aurreko urtean baino %1,93 gehiago. Solteko salgai solidoak 2006an 3,248 milioi tona izan ziren; 2007an, berriz, 2,778 milioi tona.





Pasaiako portuko trafikoaren egitura eta bilakaera.

- Nabarmendu egin behar da **2005. urteaz geroztik** Pasaiako portuan **ez dela lanik egiten solteko salgai likidoekin**. Era berean, ez du edukiontzirik erabiltzen, zama orokor guztia ohiko merkantziak direlako.
- Pasaiako portua **portu inportatzailea** da batez ere, eta, bertan, merkantzia orokorrak eta solteko salgai solidoak dira kanpotik datozen merkantzia nagusiak.





Pasaia portuko trafikoaren egitura eta bilakaera.

- Solteko salgai solidoen** taldean, 2007an Pasaia portuan lehorreratutako merkantzia-kopuru handiena burdina-txatarra izan zen: 1.491.422 t (lehorreratutako solteko salgai solido guztien %55,22). Kopuru horretatik, 1.438.031 t inportaziokoak dira; eta gainerakoak, kabotaje-trafikokoak.





Pasaia portuko trafikoaren egitura eta bilakaera.

- Merkantzia orokorren** taldeari dagokionez, Pasaia portuan lehorreratutako merkantzia-kopuru handiena **altzairuzko xaflak eta bobinak** izan ziren: 502.116 t. Kopuru horretatik, 499.470 t kanpotik etorri ziren; hau da, lehorreratutako merkantzia orokor guztiaren %44,60.



Pasaiako portuko trafikoaren egitura eta bilakaera.



- ❑ **2007an, Pasaiako portua 21. postuan egon zen** Estatuaren Titularitatepeko Portu Sistemako portuetako trafiko guztiari dagokionez. Pasaiako portuko ehunekoa %1,05 da estatu osoaren barnean.
- ❑ **Txatarraren trafikoan, Pasaiako portuak mugimendu handiena dauka Estatuaren Titularitatepeko Portu Sistemaren barruan (SPTE).**



- ❑ **2000-2007ko urteko batez besteko aldaketa-tasa** %1,48 izan zen. Beraz, SPTEkoarena (%5,22) baino txikiagoa izan zen. Ezkerreko grafikoan, Pasaiako portuaren egoera agertzen da, eta trafiko-joera beheranzkoa izan da 2006tik 2007ra.



Solteko salgai solidoak.

- Solteko salgai solidoen trafikoa %2,38 da estatu osoari begira. Beraz, **2007an Pasaia 15. postuan egon zen** Estatuaren Titularitatepeko Portu Sistemaren barruan (SPTE). Garrantziari begira, Avilesko eta Algecirasko portuen artean egon zen.






Solteko salgai solidoak.

- Solteko salgai solidoen kopuru handienak **burdina-txatarrak** dira. Batez ere, ARCELOREk Olaberrian, Bergaran eta Zumarragan dituen burdingintzako enpresetara doaz. Ondoren, **ikatz eta petrolio-kokea** ere nabarmendu behar ditugu, eta IBERDROLAK Pasaiaiko portuan bertan duen 223 MW-ko zentral termikora doaz.
- Portuko trafikoaren barruan, solteko beste salgai batzuek badute garrantzi berezirik: ongarriak, zerealak (garia) eta beste batzuk, grafikoan ikusten denez.



Txatarrak.



- **Burdina-txatarrari** dagokio Pasaia portuko trafiko handiena kopuruari begira. 2006an, hain zuzen ere, burdina-txatarraren trafiko handiena eduki zuen, SPTEko portu guztien artean.
- **2007an, 1,5 milioi tona** mugitu zirenez, %21,76 jaitsi zen aurreko urtekoaren aldean. Operadoreen esanetan, trafiko hori jaitsi egin da, gero eta txatar nazional gehiago erabiltzen delako.



ITURRIAK: PParen urteko txostenak eta EPPEren urtekari estatistikoak



Ikatza eta petrolio-kokea.

- ❑ 1999-2007an, **ikatzaren eta koke-petrolioaren** trafikoa egonkorra izan zen, eta kopuru handiena 2002. urtean lortu zen: 855 mila tona. 2007an, 656.308 t porturatu ziren, eta gehienak Iberdrolako 223 MW-ko zentral termikora joan ziren. Izan ere, konpainiak 2022ra arte izango du terminal horren emakida.
- ❑ Zentralak erabiltzen duen erregaia Errusia-Siberiatik (Murmansk) datorren inportazioko harrikatza da. Errusiako herri hori itsasotik 4.758 km-ra dago, hain zuzen ere. Ikatza trenez garraiatzen dute portura, eta handik, 65.000 eta 80.000 PAT arteko Panamax itsasontzietan dakarte Bilboko porturaino.
- ❑ 5.000 PAT inguruko itsasontzi batek Bilboko portutik Pasaiako portura garraiatzen du ikatza, egun batean bai bestean ez. Gutxi gorabehera, hilabete behar da Panamax itsasontzi bakar batean Bilbon lehorreratutako ikatz guztia Pasaiako portura eramateko.





Solteko beste salgai batzuk.

- ❑ **Ongarrien** trafikoa ezegonkorra zen 2005era arte. Handik aurrera, apurka-apurka egin zuen gora, harik eta 2007an 157.000 t-koa izan arte.
- ❑ 2007. urtera arte, merkantzia horren inportatzailea izan da Pasaia.





Solteko beste salgai batzuk.

- ❑ Zerealen eta haien irinen joera ez da argia. Garraiatutako merkataritza-kopuru handiena 208 mila t izan zen 2005ean.



Solteko beste salgai batzuk.

- Bestetik, **zementuaren eta klinkerraren** trafikoa ere aipatu behar da. ikusten denez, ikaragarri jaitsi da 2006tik 2007ra.




Merkantzia orokorrak.

- **Merkantzia orokorren** trafikoa apurka-apurka igo da 1997tik gaur egunera arte. Kopuru handiena 2007an lortu zen, 2,25 milioi tona mugitu ziren-eta.


MERKANTZIA OROKORREN TRAFIKOAREN BILAKAERA

Pasaia portua
Unitateak: milioika tona




MERKANTZIA OROKORRAK - 2007

Pasaia portua
Unitateak: milaka tona



MERKANTZIA OROKORRAK - 2007

Pasaia portua





- Merkantzia orokorren barruan, honako hauexek dira 2007ko trafiko nagusiak: **produktu siderurgikoak (profilak)** (guztizkoaren %22,78), **altzairuzko xaflak eta bobinak** (%21,37), **turismoak** (%19,34), **egur-orea** (%7,10), **totxoak** (%4,38), **arbela** (%4,24) eta **produktu siderurgikoak (barrak)** (%3,61). Gainerako merkantzia orokorren trafikoa %17,18 izan da.

ITURRIAK: PPAren urteko txostenak eta EPPEren urtekari estatistikoak

Merkantzia orokorrak.


- Produktu siderurgikoek** %52,76 egin zuten gora 1997-2003an, eta bigarren postuan egon ziren, 2006-2007ko portuko trafiko handien barruan. Trafiko horretan, altzairutegietan jatorria duten esportazioak nabarmentzen dira. Izan ere, porturatutako txatarra erabiltzen dute lehengai moduan.




- Eraikuntzako materialen** hazkundea %18koa izanenez, bilakaera positiboa izan zuten (2000n, kopurua 137 mila t izan zen guztira; eta 2006an, 162 mila t).

Merkantzia orokorrak.


- Portuan hiru solairuko silo berria jarri dutenez, **ibilgailuen** trafikoa %24,55 hazi da 2006-2007an. Trenz iristen diren ibilgailuen kopurua esportazioen %30 da. Inportatutako ibilgailuak, ordea, errepidez garraiatzen dira.
- Hona hemen Pasaia terminalak 2007an mugitutako ibilgailuen marka nagusiak: OPEL-GM (150.319 unitate), MERCEDES (67.644 unitate), VOLKSWAGEN (29.104 unitate) eta FORD (21.544 unitate).



AUTOMOBILAK MARKEN ARABERA - 2007
Pasaia portua - INPORTAZIOAK
Unitateak: ibilgailu kopurua





AUTOMOBILAK MARKEN ARABERA - 2007
Pasaia portua
Unitateak: ibilgailu kopurua




Merkantzia orokorrak.

- Paperaren eta egur-orearen** trafikoa (%22,26) 2006-2007an gehien hazi direnetakoa izan da, azken urte horretan 171.039 t-ra iritsi baitzen.
- Merkantzia horren trafiko gehiena inportaziokoa da Pasaiko portuan.







Beste trafiko batzuk.

- **Petrolio-produktuak** garrantzitsuak izan ziren 2003ra arte. Handik aurrera, trafikoak behera eta behera egin zuen, harik eta 2005ean erabat desagertu arte. Gaur egun, Pasaia portuan ez dago halako trafikorik.



Ro-Ro trafikoa.

- Portu osoari begira, horrelako trafiko-kopurua apurka-apurka handitu da 2002. urteaz geroztik. 2007an, 655.212 t-ra iritsi denez, hazkundea %24,07koa izan da, aurreko urtearen aldean.




Ro-Ro trafikoa.

- Hona hemen 2007ko Ro-Ro trafikoko merkantzia nagusiak eta 2006-2007an izan duten hazkundera: **automobilak** (435.001 t) eta %32,27ko hazkundera; **eraikuntzako materialak** (95.281 t) eta %6,02ko hazkundera; **produktu siderurgikoak** (55.037 t) eta %2,76ko hazkundera; eta **makinak eta ordezeko piezak** (45.933 t) eta %2,99ko hazkundera.
- 2007ko trafikoa aurreko merkantziarena baino txikiagoa izan arren, **egurrek** eta **karbonatoek** 2006-2007an izandako hazkundera nabarmendu behar da, %427,65 eta %402,31 izan delako, hurrenez hurren.


RO – RO TRAFIKOAREN BILAKAERA – MERKANTZIA OROKORRAK

Unitateak: milaka tona




RO – RO TRAFIKOAREN BILAKAERA – MERKANTZIA OROKORRAK

Unitateak: milaka tona





RO – RO TRAFIKOAREN BILAKAERA – MERKANTZIA OROKORRAK

Unitateak: tonak





Arrantza.

- ❑ Arrantzari buruzko datuetan agertzen diren kontzeptuak **alturako eta baxurako arrantza freskoari** dagozkio.
- ❑ Arrantza freskoaren trafikoa %8,27 jaitsi da 2006koaren aldean; urte hartan, Pasaia Estatuaren Titularitatepeko Portu Sistemako lehenengo 10 postuetan zegoen arrantzari dagokionez.




Hornidura.

- ❑ **Hornidurari** buruzko datuetan sartutako kontzeptuak erregai likidoak, ura, izotza eta beste batzuk dira.
- ❑ Horniduraren trafikoa %4,8 jaitsi da 2006koaren aldean, Pasaia 24. postuan zegoelako SPTEko portuen artean.



Produktuen ABC azterketa.

- ❑ Pasaiko portuan (PPA), 17 produktu desberdin mugitzen dira, 1.000 tonatik gorako kopuruetan. Dena dela, 9k baino ez dituzte 100.000 tona gainditzen; eta 2 produktu nagusiek, milioi bat tonatik gora.
- ❑ Trafikoa produktu nagusietan dago kontzentratuta; lehen hirurak guztizkoaren %71,16 dira. 100.000 tona gainditzen dituzten 9 produktuak %95,58 dira.
- ❑ Produktu gehienak lehorreratu egiten dituzte, eta automobilak, haien ordezeko piezak eta eraikuntzako materialak soilik kargatzen dira proportzio handiagoan.




Merkantzia-ontzien kopurua eta GT.

- ❑ Alderatutako urteetan, ontzien kopurua gutxitu eta GT handitu egin denez, agerikoa da ontzien tamaina handitu egin dela.
- ❑ 2002-2006an portuan jardun duten ontzi handienen luzera aztertuta, 2002, 2003, 2005 eta 2006an luzera hori bat dator ontzia sartzeko baimendutako gehienezkoarekin, portuaren berezko baldintzak direla eta.
- ❑ Ontzien portu-egonaldien bilakaera beheranzkoa denez, lanen etekinek hobera egin dutela esan daiteke.

GT/ONTZIEN BILAKAERA

Pasaiko portua


Unitateak: tona/unitateak



ONTZI KOPURUEN BILAKAERA

Pasaiko portua


Unitateak: unitateak



GTen BILAKAERA

Pasaiko portua



Unitateak: milioika tona



ITURRIAK: PPAren urteko txostenak eta EPPEren urtekari estatistikoak



2006an portuan sartzeko eta irteteko erabilitako garraiobidearen arabeko trafikoa.

- Interes orokorreko portuetan **trenez** sartu edo irteten diren merkantzia guztietatik, Pasaiako portuari sistema osoaren %3,04 dagokio; beraz, 10. postuan dago SPTEko portuen sailkapenean.
- Erabilitako garraiobidea **errepidea** denean, portu-sistemaren barruan mugitutako merkantzia guztien %2,14 Pasaiako portuari dagokio; beraz, sailkapeneko 18. postuan dago.
- Beste garraiobide batzuk** erabiltzen badira, portuari %0,46 dagokio; beraz, 13. postuan dago.
- Gaur egun, ez da **oliobideetatik** merkantziarik sartzen eta irteten.



Portuan sartzeko eta irteteko erabilitako garraio bidearen arabera (jarraip.).



- 2007an, Pasaia portuan sartu eta/edo irten ziren merkantzien %81,19 **errepeidez** egin zuten; eta %8,73, **trenez**, Portuko Agintaritzak 2007ko txostenean emandako datuen arabera.



- 2007an, guztira 336.850 t trenez iritsi ziren Pasaia portura.



Trafikoaren bilakaerak eta aurreikuspenak.

- Ondoren, Pasaia portuko **trafikoaren bilakaerak** eta **aurreikuspenak** azaltzen dira 2007., 2010. eta 2020. urteetarako, **Estatuko Portuen Erakunde Publikoaren** arabera. 2007ko benetako datuen desbideraketak ere azaltzen dira, Portuko Agintaritzaren arabera.
- Oro har, trafiko adierazgarrienei dagokienez, desbideraketak negatiboak izan dira EPPEk aurreikusitakoaren aldean. Bina ez da hal gertatu paperaren, orearen, eraikuntzako materialen (zementua eta klinkerra zenbatu gabe) eta ibilgailuen trafikoan. Hain zuzen ere, ibilgailuen trafikoa %27,35 hazi da, EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean.
- Trafiko guztiari** dagokionez, desbideraketa $-18,54\%$ izan da EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean. Badirudi trafiko horren bilakaera manipulaturako 5-6 milioi tonen inguruan gelditu dela.





Txatarretan eta produktu siderurgikoetan manipulaturako tonak gelditu edo jaitsi egin dira.

Txatarren trafikoari dagokionez, desbideraketa $-29,08\%$ izan da EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean. Beraz, 2006-2007ko hazkundea negatiboa izan da: $-21,76\%$.





Produktu siderurgikoen trafikoari dagokionez, desbideraketa $-6,85\%$ koa izan da, EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean. Beraz, 2006-2007ko hazkundea negatiboa izan da: $-1,11\%$.



Trafikoaren bilakaerak eta aurreikuspenak. Ikatza eta petrolio-kokea.



- ❑ Ikatzen eta petrolio-kokearen trafikoa $-13,21\%$ desbideratu da, EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean. Beraz, 2006-2007ko hazkundea negatiboa izan da: $-9,25\%$.
- ❑ Trafiko guztien gorabeherak handiak izan dira aztertutako epealdian. Nolanahi ere, banan-banan aztertuz gero (hau da, instalazio bereziek erregistratutako solteko salgaiak bereiziz gero), bilakaera iraunkorragoa da 400.000-600.000 tonen inguruan, Pasaia zentral termikoak lehengai moduan erabilitako ikatzen mailaren barruan.





Trafikoaren bilakaerak eta aurreikuspenak. Automobil benetako trafikoak EPPEren aurreikuspenak gainditu ditu.

□ **Automobil benetako eta haien ordezko piezen** trafikoari dagokionez, %37,66 desbideratu da EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean.

□ Trafiko horren bilakaera epealdian oso lineala bada ere, 2007an jauzi kualitatibo handia izan da, silo berria abian jartzean. Hori dela-eta, badirudi trafiko horrek gora egingo duela, harik eta egonkortu arte.







□ Alde horretatik, **automobil berrien** trafikoari dagokionez, desbideraketa %26,14 izan da, EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean. 2006-2007ko hazkundera %24,55 izan da.



Trafikoaren bilakaerak eta aurreikuspenak. Arrantza freskoaren bilakaera negatiboa izan da aztertutako epealdian.

Arrantza freskoaren bilakaera negatiboa izan da aztertutako epealdi osoan.

EPPEren aurreikuspenen aldean, desbideraketa %37,38koa izan da, 2007ko plangintzaren aldean.



Horniduraren trafikoa **-%35,78** aldatu da, EPPEren 2007rako aurreikuspenen aldean. Beraz, **-%4,8** jaitsi da 2006-2007an.